

ZIRI-BERTSO ETA ESKE-KOPLA ARGITARAGABEAK (1770, 1827)

Patri URKIZU
UNED

Nire oroitzapenetan beti txoko kuttun bat izanen duen
Juan Mari Lekuonari

Maiz pentsatu izan ohi dut gure literatura aski urria izanik eta ez oso maila gorakoa, batek baino gehiagok azpimarratu ohi duen bezala, bere urritasunean, -XX. mendeko hirugarrenen herenaz geroztik ugariago bilakatu den arren-, eta bere maila apalean baduela altxor ederrik eta mende iraganez sorpresa onik aurki dezakegula oraindik, agian baldin eta liburutegi publiko eta pribatuak ongi arakatu eta aztertuko bagenitu.

Susmo eta itxaropen honen baieztatze pozgarritzat jo ditzakegu, adibidez, Borja Aginagaldek ediren dituen bai Joan Perez de Lazarragaren eskuzkribua¹ bere eleberri eta poemekin baieta Joakin Altzibarren² *Sukaldeko Disparatiak* bezala deitu dudan eta 1772an jokatu zen antzerkitxoa. Neroni ere ahalegindu izan naiz eskuzkribu zaharren eta argitaragabeen plazaratze ahalegin horretan, bai direla poesia, bai teatro, bai saio jenerokoak³, euskal literaturaren altxorra aberastu nahiz.

Oraingo honetan beste bi poema argitaragabe nahi ditut aurkeztu.

¹ Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez de Lazarraga, Dianea & Koplak*, Madrid 1567. Erein, Donostia 2004.

² Borja Aginagalde et al., *Joaquín de Alcibar- Jauregui eta Acharan (1746-1810) eta Grand Tourra (1772)...* Egan, Donostia 2007.³ www.blogari.net/patriurkizu

Bata (A), Bergarako Udaletxeko artxiboan aurkitu dudana eta XVIII. mendekoa dena, 1770eko hain zuen. Eta bestea (B), poeta, eleberrigile eta itzultziale aparta den Joxagus Arrietak opariturik dotrina eskuzkribu baten bukaeran aurkitzen diren eske-koplak. Hauek, 1827.urtean idatziak ziurren, baina tradizio zahar baten oroitarazleak.

Has gaitezen, bada, transkripzioekin, zein gaurko grafiaz ipini ditudan faksimilea eranskinean emango baititut, eta komentarioekin.

A⁴

ATENTZIOZ, JENTIA, ADITU EZAZU

*Atentzioz, jentia, aditu ezazu,
Corpus Christi gabian gazeta dute paratu,
Ura paraturikan gabian amaiketan
Bota diote kulpa kojuari bizkarrian.
Bigaramon goizian apaiz bat pasatu,
Galdetzen zioela zer zuen kontattu,
Ikusi zubenian bere prinzipiua
Ez zan atrebitu kontatzen kasua
Apenas aura juan beste bat etorri,
Donzeila atrebidea bereala soltatzen asi,
Soltatzen asi eta furia andiarekin,
Neuk jakingo dot bada oraindio zer egin.*

Bertso hauen arrazoia eta nondikakoa jakitearren auzi kriminalaren gora beherak aztertzen jo behar dugu, eta ohi bezala eskribauet gaztelaniaz jasotzen baitzitzuten hauek, hona zer dioen epaiaren lehen txostenak:

1770

Pedro de Artolazabal vecino de esta Villa de Vergara, marido legítimo de Theresa Antonia de Otalora y padre y legítimo administrador de la persona y bienes de Cecilia Theresa ante Vmo como mas aia lugar en dicho parezco y digo que la memorada mi hija acerca de las cinco y media de la mañana el ... de junio ultimo hallo este papel que presento, y ... con la debida formalidad, fixado con quattro obleas en la puerta principal de la casa denominada Arostegui, propia de Don Joaquin Ignacio de Moya e Izaguirre, vecino de esta memorada villa radicante en la calle de Barrencale de ella. Y respecto de que

⁴ Bergarako Herri Artxiboa. Pleitos criminales, C/ 334-03.

el insinuado papel contiene expressiones sumamente injuriosas y denigrativas del honor de las sobredichas mi muger e hija, y para escarmiento de su author y restauracion del credito de ellas, que tal vez andara por los suelos, conviene a su derecho dar informacion de la verdad de la narrativa de este escrito. Por tanto

A Vmo suplico se sirva mandar se me reciba informacion que incontinenti ofrezco al thenor de todo lo sobredicho y que a los testigos que por mi se presentaren se les exhiba el insinuado papel, y en su vista se les pregunte si tiene noticia de quien lo ha escrito, o lo ... de quien es la letra, con que esta escrito... lo demas que fuere conducente para ... notificacion de su author y que evacuada que sea se me entregue para deducir las acciones que me competan en justicia, que pido con constante ... presumen. Valga.

Ldo Sagastizabal⁵.

Ikusten denez kexu honestan Pedro de Artolazabalek auzitara jotzen du bere emaztea eta alabaren ohorea ukituak izan direlako Arostegiko atarian eskegi ziren bertso batzuen bitartez. Iritsi zaizkigun bertsoak testiguen orio-menak emandako lekukotzaren araberakoak dira, baina delako paper zintzili-katu hura ez dugu aurkitu artxiboa. Hona espreski nola lekukoetarik batek eman zuen bere testigutza:

Preguntando al tenor al segundo Capitulo de la Peticion folio ocho de estos Autos= Dixo que en la noche de Sta Ana de este presenta año hallandose el que depone junto a la puerta de la casa en que lavita Pedro Antonio de Eguia vecino de esta referida villa en la calle de Barrecale de ella en compañia de Miguel Antonio de Otalora, Manuel de Azcue, Pepe criado en la taberna del varrio de Zubierta de esta misma villa, y otras dos personas de quienes no hace memoria, oyó cantar al expresado Otalora tres ó quatro versos de una canción que empezaba en la forma siguiente: atencios gentia adituezazu, corpuschristi gabian Gaceta dute paratu ura paraturican gabian amaiquetan cojuri bota diote culpa vizcarrian. Que posteriormente á oydo cantar los propios versos a Baupertista de Lombida residente en esta insinuada villa y criado de Joseph de Ansoategui vecino de ella por quattro ocasiones, que en las dos primera ahora cosa de tres meses poco mas ó menos los cantó sólo en presencia del que expone a tiempo en que se restituía a su casa en su compañía en la calle de Barrencale de esta citada villa a cosa de las nueve horas de la noche. Que quince días despues oio repetir por dos veces los mismos versos al referido Baupertista de Lombida en la calle de Vidacruceta de esta nominada villa entre ocho y nueve de dos noches, que en estas dos ultimas ocasiones canto el citado Baupertista los referidos versos según hacen memoria en presencia de Manuel de Azcue, y que

⁵ Bergarako Herri Artxiboa. Pleitos Criminales C 334 /3, f. 2

esta en duda si se hallaba tambien presente en las citadas dos ultimas ocasiones el sobredicho Miguel Antonio de Otalora. Que los insinuados versos los compuso el mismo Otalora segun se lo aseguró al que expone manifestandole el papel en que estaban escritos cosa de un mes despues que se publico la fixacion del insinuado papel⁶.

Garbi gelditzen da beraz lekuko honen arabera zein den bertsoegilea. Migel Antonio de Otalora. Eta ez bakarrik idatzi baizik eta kantatu ere egin omen zituen beste lekuko batek, Pedro Arancetak dioen arabera:

Que a las nueve horas de la noche del dia de Sta Ana de este presente año hallandose el que expone junto a la Puerta de la casa de lavitacion de Pablo Antonio de Egua vecino de esta villa sita en Barrencale de ella en compañia de Miguel Antonio de Otalora, Joseph de Aristi Aristegui, Manuel de Azcue y Miguel de Basauri, todos residentes en esta expresada villa, oyo al citado Otalora cantar unos versos y entre ellos los que siguen Atencios gentia aditu... (A)⁷

Pen da paper hura osorik ez iritsi izana nolakoak izan ziren irainak jakitearren, baina, lekukoen testigutzen arabera garbi dago buruz ikasi zituztela, zeren bederen hiru aldaera e兹berdin aurkitzen ditugu horrelako eta antzeko kasuetan gertatzen ohi den bezala:

- A₁ *Atentzioz, jentia, aditu ezazu.*
A₂ *Orain, atentzioaz, jentiak, aditu.*

Edota

- A₁ *Bota diote kulpa kojuari bizkarrian*
A₂ *Kojuari bota diote kulpa bizkarrian*
A₃ *Kulpa bota diote kojuari bizkarrian.*

Eta bertsogilea ez zegoen oso kontent kartzelan, noski, bere bertso sor-ketaren ondorio gogorrak ordaindu behar izan baitzuen. Hona bere alegazioa:

Septiembre 24 de 1770

Miguel Antonio de Otalora vecino de esta villa y preso en las Reales carceles della, con mandato berbal de sus Ministros, ante Vm parezco como mexor puedo y aia lugar en derecho, y Digo que el dia veinte y dos del corriente a cosa de las nueve menos cuarto de la noche fui retraido a estas referidas carceles, sin haverme hecho cargo de culpa

⁶ Idem, f. 15

⁷ Idem f.18v

alguna, y sin embargo de que espiraron las veinte y quattro horas que mandan varias leies Reales para hacer saber la causa en que incurren los deliquentes, no se me hace cargo de nada, en perxuicio de mi lavor y familia y no siendo justo el que con dilatar padezca esta el socorro con que debe mantener, ni que por mucho tiempo con este detimento tenga yo los perxuicios considerables que son notorios, es de administrar Va con la brebedad que mandan las leies, por lo que A Vm suplico se sirba mandar que incontinenti se me haga notorio de delito que hubiese cometido, para ... vista con comunicacion de abogado defienda el incuso, pues asi procedo en Xa la que pido con juramento y por vía de incidencia o comom mas aia lugar protesto devran de las de mas acciones que me competan & entre teng de su noche = se=Va.

Miguel Antonio de Otalora⁸

Euskal ziri-bertsoen ixtorio tipia egiten hasiko bagina XIV. mendetik hasi beharko genuke, alegia Aragoeko Pedro IVa eta Gaztelako Juan Iaren aurka-ko bertso haietan *In nomine patria/ Aragueago Petrika / Castellako Joanikot / Ekidak ipordian pot*⁹. Hauei jarraituko liete duela gutxi Ricardo Urrizolak ezagutarazi zizkigunak eta 1491ekoak liratekeen Martitxo Musuren kontrako bertsoak, agian zintzarrots batean moldatuak. Hona hemen: *Antzareak oina zabal / Buztaina laburko. / Nork berea demana / beti da bellako. / Martitxo Musu da alako / eta ala zainezko*¹⁰.

XVI. mendean ziri bertsotzat jo ditzakegu ere, gaztelaniazko *versos de la malmonjada* - ren ildotik eta erasmismo punttu batekin Joan Perez de Lazarragak idatzitako *Monjaren kuitak*¹¹.

XVII. mendean ere ez zaizkigu falta , hala nola Juan de Otazu Leaburuko erretoreak eginak¹² edota Migel Basterretxeak¹³ moldaturikakoak.

Eta XVIII. mendean Juan Etxeberriak¹⁴ 1716an Lasarten Juan Martin Gorostiagaren kontra konposatuak, 1725ean Jean Munduteguy¹⁵ uztaritztarrak

⁸ Idem, f.29.

⁹ F. Idoate, *La brujería en Navarra y sus documentos*. Pamplona, CSIC 1978.

¹⁰ Ricardo Urrizola, "La copla de Etxaleku", *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea 2007, nº 104, 59-67.

¹¹ Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez...aip. lib.*, 195-201.

¹² Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madrid, 1964, 127.

¹³ Antxon Narbaiza et al., *1685eko Kopla zaharrak*. Ego Ibarra, Zarautz, 1992, 7.

¹⁴ Jesus María Satrustegi, "Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)", *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Iker 2. Bilbao, 1983, Euskaltzaindia, 571-581.

¹⁵ Jean-Baptiste Orpustan, *Précis d'histoire littéraire basque . 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskera*. Izpegi, Baigorri, 1996, 113.

Pierre de Salaberry Parlamentuko abokatuaren kontra burutuak, Jean Robin¹⁶ eta Salvat Monho¹⁷ apezek asmaturikoak, Manuel Arizabalo Kontseju Errealeko abokatuarenak¹⁸ eta oraingoan Migel Antonio Otarorarenak.

Beraz, esango genuke ziri-bertsoek konstante bat osatzen dutela euskal bertsogintzaren alorrean, XIX garren mendean adierazgarrienetarikoak Piarres Topet Etchahunenak ofizio zenbait aurka¹⁹, eta Serafin Barojak²⁰ karlisten kontra idatzitakoak izan daitezkeelarik. Piarres Lafittek bere *Kantu Kanta Kanthore* liburuttoan (1967) VIII. Atalean *Irri eta Zirika* deituan 56 kanta ezberdin ematen dizkigu, eta neronek 58 jaso nituen Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoakoak biltzean²¹. Nabarmen da XX. garren mendean Juan Mari Lekuonaren²² *Liburnuen Karrosa*-k ere ez duela ahantzi tradizioa bertan dotoreziaz eta modernitatez txertatzen delarik.

ZUGARRAMURDIKO ESKE-KOPLAK 1827

Esan bezala Joxagus Arrietak oparituriko Dotrina zahar²³ batean azken orrialdeetan aurkitzen dira hemen transkribitu eta ondoren komentatuko ditugun eske-koplak :

¹⁶ Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 233-255.

¹⁷ Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 189-230.

¹⁸ Xabier Alberdi & Carles Riera, *Iraganaren ahotsak./ Las voces del pasado*. Irun-Hondarribia. Luis de Uranga Kultur taldea, 1998, 42-45.

¹⁹ Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 801-840.

²⁰ Patri Urkizu (ed.), *Serafin Baroja, Bertsoak. Pudente, Trormesko Lazarotxo, Kontuak*. Julio Caro Barojaaren hitzaurrea. Txertoa, Donostia, 1988.

²¹ Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I, Anonimoak*. Etor, Donostia 1991, 313-325.

²² Juan Mari Lekuona, “Liburnuen Karrosa”, *Ilargiaren eskolan*. Erein, Donostia 1979, 67-100.

²³ (sic) Catecismo que perteneció a Martin Felipe Lecubarri, abuelo de Nuestra abuela. Data de 22 de junio de 1827.

B

1. Le gloria eta leloa lelo²⁴
gaitzera digoa gora da,
eta gora goanen da
gaurko emengo leloa.
2. Ela, ela, nor da, nor da?
Jinkoa dela etxekoetan,
Jinkoa dela etxekoetan eta
leku guzietan.
3. Eldu gara urrundik²⁵,
gauba bidean emanik,
espos pare bat emen badela
Madrilgo idian enzunik.
4. Etxeak eder eskalera,
marinel gaxoak peskadela,
etxekoak erraguzue
ongi itorri garela.
5. Bibeperra²⁶ eta espezia
Katalunian erosia,
etxekoak emaguzue
koplatzeko lizentzia.
6. Bortak eder ezpelez,
bortak agak lizarrez,
etxekoak erraguzue
nai gituzuen bai ala ez.
7. Etxean eder kaikua,
errekaldean kukua,
presenteko jaun esposa hori
gizon gazte hazitua.

²⁴ Bertso lerro honek ohiko leloaren antzekoa dirudi.

²⁵ *Heldu gira urrundik, / Gaua bidean emanik; /Gaua bidean emanik eta / Ibaunteria entzunik...* (Adele Diharasarri Saran 1917an Aita Donostiak jasoa. Jorge Rieu (ed.), *Cancionero Vasco. T. VI, P. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994, 418.*) *Heldu nuzu urrundanik / gaua bidean emanik, / gaua bidean emanik eta/ Ibaute dela entzunik.* (R. M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza*, T. IV.Espasa Calpe, Madrid 1947, 114.)

²⁶ *Bibeperra* (sic), biper, piper.

8. Karrosan elizarako
urrea ofrendatuko,
handik etxera datorrenean
zilar kadiran jarriko.
9. Mandoak eder panpalina²⁷,
urre eraztunak begi fina,
andre espos horrek iduri baitu
bertzen aldean imajina.
10. Hortzak dituzu zilarrez,
begiak urre botoinez,
gaur zurekin etziten denak
biar urrikirik ez.
11. Urean eder aingira
ingura ingura dabila,
presenteko andre espos hori
botoina josten ari da.
12. Ogea zuri egin
begie mihise zuri batekin
mihise zuri batekin eta
almoada eder biekin.
13. Aita Simonek²⁸ argi
eginen diote siriho batekin,
ziriho batekin eta
tortxa eder biekin.
14. Ardiak eder garea²⁹,
ganbara leio gabea,
atea trink-trank tran-trink zerratu eta,
ai zer espos parea!
15. Zinzirriku minzirriku³⁰,
bageak³¹ egun zilo ditu,

²⁷ *Panpelin*. Panpelina; txilina. < Campanilla> : *xakur oi panpalinekin dabile. Panpline polite...* (Mariano Izeta, *Baztango Hiztegia*. Nafarroako Gobernua. Iruñea 1996, 147).

²⁸ Simon apostolua, kananeotartzat jotzen da, eta Judarekin batera Persian predikari ibili omen zen, non apez paganoek biak hil zitzutzen. Simon arrantzaleen zaindaria da.

²⁹ *Gare*, joare.

³⁰ *Zinzirriku-minzirriku*. Zintzarri / zintzirri hitzaren gainean antolatu onomatopeia.

³¹ *Bage*, bahe.

nere fedea! naiago nuke
amabi seme bazintu.

16. Ezkila berriak eder du soinu,
ezkila dorreak jardesten du,
seme eder bat dakizuela
Erromako Aita Saindu.
17. Semea bada eginen dugu
enperadore Spainiako
alaba bada areago
erregina Frantziako³².
18. Landan eder udare,
erran gogo dut au ere,
seme eder bat dakizuela
Spainako errege.
19. Taza eder ezpainean,
ezin edan eztenean,
edatera iguzue,
Jainkoaren izenean.
20. Landan eder gisua,
Eztainu honaren pisua,
Jinkoak omen ona dizuela
finean Parabisua.
21. Etxeak eder gapiroa³³,
erretzen dago zirihoa,
biar ere etorriko gara,
hil ezazue zikiroa.
22. Itsasoetan bazterrak ilun,
marinel gaxoak andure³⁴ egun,
agur, agur, etxeokoak,
Jinkoak dizula gabon.

³² Hona *Maitiak bilhoa holli-k* dakarren antzeko bertsoa:

*Senhartako emozie / Frantziago errege /
Frantzian ezpada ere, Espanakoa bedere; / Bada errege, enperadore, phüntzela ja
eztüke.*

(Jorge de Rieu (ed.), *Flor de canciones populares*. Sendoa, Donostia 1982, 64.)

³³ *Gapiro. Iz.* (1571). Teiltatuaren zurajean, gailurretik ertzetara doazen hagetako bakoi-tza. (Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa, Donostia 1996, 301.)

³⁴ *Andure*, ahul.

Ohar gaitezkeenez garbi dago Eske kanta hauek, Eguberri, Santa Ageda, Santibate... garaian kantatzen zirenak, Zugarramurdiko hizkeran moldatuak daudela, zeina Lapurterarekin bat lerratzen den Azkuek bere Hiztegian³⁵ ongi ageri digun bezala, jakina baita bi erresuma ezberdinan kokatuak egon arren Sara eta Zugarramurdi ez daudela hain urrun, *Infernuko errekkak* bereizten dituelarik.

Lapurteraren tradizioari jarraikiz hor dugu <h>-aren erabilera: *hazitu*, *hartz*, *bona*, *ziriho*, edota <tch>-rena: *etche*... Halaber morfologiari begiratuz, hor dugu zubi-hotsa, gauba hitzan, Donibane Lohitzunen ematen den *eskuba* bezala. Hala nola -ai- diptongoaren monoptongatza, hots, -i- bilakatzea, *gituzu* adizkeran Arrangoizen esaten denaren arabera: *gitezin* (< gaitez-). Hala ere, adizkera sintetikook: *emaguzue*, *erraguzue*, *iguzue*...

Bestalde, gaztelaniaren eragina hiztegi mailan nabarmena da: *almoada*, *espos*, *pescadela*, *taza*, *tortxa* (*torche fr.*, *antorcha gazi.*), *ziriho* (<*cirio*>).

Manuel Lekuonak Kopla zahar hauek aztertzerakoan³⁶, honela definitzen du duten teknika eta egitura:

Cada copla tiene de ordinario cuatro versos; de los cuales los dos primeros encierran característicamente una idea poética, una ficción pintoresca, un golpe de imaginación, un rasgo bello tomado de la naturaleza o del arte; mientras los dos últimos contienen una idea más prosaica, más vulgar, aunque también más intencionada.

Halaber, berauen antzinatasuna, itxurazko zentzueza eta benetazko lotura, eta agian mentalitate magikoaren adierazgarri daitezkeela azpimarratzen digu. Juan Mari Lekuonak, bere aldetik koplen sarrera hauek, *kodeetako kopialarien hasierako biñeta marraztu eta koloreztatuak*, diruditela dio³⁷.

Maizenik ageri zaigun epitetoa, *eder* da. Hamahiru aldiz, hain zuzen: (*etxeak eder...*, *bortak eder...*, *etxeán eder...*, *mandoak eder...*, *urean eder...*, *almoada eder...*, *tortxa eder...*, *ardiak eder...*, *ezkila berriak eder...*, *landan eder...*, *taza eder...*). Eder hau bertso hauetan bigarrenik kokaturik izan arren batzuetan joan daiteke ere lehenbizi, hala nola honakoan:

*Eder zeruan izarra
Errekaldean lizarra
Etxe ontako Nagusi Jaunak
Urre gorriz du bizarra*³⁸.

³⁵ R.M. Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao 1905-1906, XXX.

³⁶ Manuel de Lekuona, *Literatura oral euskerica*. Euskaltzaleak.. Donostia, 1935, 92.

³⁷ Juan Mari Lekuona, “Euskal balada tradiziozkoen estiloaz”, *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker 10, Euskaltzaindia, Bilbo 1997, 246.

³⁸ Idem., 101.

Metaforarik ere ez zaigu falta eske-kopla hauetan, hala nola: *urre eraztunak begi fina.* (9b.). Eta errefrau laburrik, baina bere lakonikotasunean benetan esanguratsu denik ezta ere, adibidez, *ezin edan eztenean* (19b.) Honen antzeko zenbait bildu zituen Antonio Zavalak³⁹, adibidez: 757. *Egarri denari edozoin ur atsegingerri.* 1106. *Ez duenak ezin eman.* 1132. *Ezin jan danean, oiloa zintzilik.*

Etxeko alabaren irudia ere ezin molde ederragoz ematen zaigu. Esate baterako, deskripzioa aurpegiaren bi elementutan kokatzen da, *hortzak dituzu zilarrez /begiak urre botoinez.*

Hasiera eta bukaera benetan ongi aurkeztuak daude. Lehenik *leloa* iragarriz eta *koplatzeko lizentzia* eskatuz, eta azkenik agurra hogeitabigarren koplan emanez.

Ez dira, dena den, honelako eske-koplak soilik Euskal Herrian ematen, ongi adierazten baitigute hauen berri emanez bai Arnold van Gennep-ek⁴⁰, bai eta hitzotan Rodney Gallop-ek⁴¹ berauen zabalkunde handia Europa osoan:

Entre las canciones populares vascas más curiosas se encuentra un grupo que puede ser llamado propiamente «wassailing» (brindis a la salud de una persona). La palabra inglesa «wassailing» se deriva del anglosajón «wes-hal» (tener salud) y se aplica a una costumbre que sin duda es de origen pagano. En las Islas Británicas se creía que los «wassailers» traían suerte y abundancia a las casas que visitaban. En toda Europa, el tema de sus canciones es el mismo. Anunciaban el objeto de su visita, adulaban al dueño o dueña de la casa, pedían dádivas de comida y partían dando gracias o insultando, según el aguinaldo que hubieran recibido.

Beraz, amai dezadan esanez, hain modu adierazkor, herrikoi eta ederrean Naturarekiko harremanak aurkezteak bilakatzen dituela Kopla zahar hauek herri literaturaren perla ederrenetarikoak.

³⁹ Antonio Zavala, *Esaera zaharren bilduma berria* (I). Auspoa 184, Tolosa 1985, 83, 110, 112.

⁴⁰ Arnold van Gennep, *Le folklore français. Du berceau à la tombe. Cycle de carnaval-Carême et de Pâques.* Robert Laffont, Paris 1998.

⁴¹ Rodney Gallop, *Los vascos.* Versión española de Isabel Gil de Ramales. Castilla, Madrid 1948, 111.

A

Cecilia Muriel de Alor lazabal nacida santa
nominada villa: que en el mismo tiempo yca-
sion y presencia tam. dijo doctor Tayol, q.
Manuel dijo al que expone el propio Otalora,
que D^r. Simon de Itzquinua Peyreto Bon-
ficio calabasquial que Pedro esta expresado
Alla Lana vió el refido Papel aterrizo que
redallaba figado esta sobre dicha Puebla de
Arceniega lunes el anterior a dia inme-
diatio al expresidente: que al correspondio
salario de el dia est de Ara ante presidente
Hallandose el que expone junto ala Puebla de
la ciudad de Barakaldo en Barakaldo
vecino de esta charilla sita en Barakaldo
della acompania antigua de Acero de
Otalora, Tayol y Asist. Arregui, Manuel
Alzaga y Alfonsi de Baraun, todo mi.
Dona esta expresada villa, oyò alcides
Otalora cancion ma Busto, y entre ello
y los que expresan = Acenos genera adity Cox
preschistis go bien fraterna disponer, ma
paratizican garran amaigutian, botadiote

Bergarako Herri Artxiboa, auzi kriminalak, C 334 /3, f. 18v.

19

culpa. Cofuas bideazpias. Signaron goicián ope
 bat para su galdeconcio el la cizquierda contada, iurizan-
 bimán beseprinapua, erzancateela concacencia.
 Alpensas auxa suar, beldibat etxari, doncella atze-
 ridia besuala soleacer a si, soleacer a si eta feria ar-
 diareguin, neuc faguindot báda oxamindiocregun
 que en cantax los obispos díos (1845), gotera, en que
 no se acuerda, acompañaron el que oyone, y sus compa-
 ñia alciano. Otalora, hera este el que llevaba la voz, dizi-
 ña en mitinua allos domas: Que hasta que el mininudo Ota-
 lora manifestó algue oyone los ciados. Poco crujito
 en un Pasel ala luz de la dia en undia festivo inmediato
 al del S. Juan Bautista, subióse encaramo juncos allos Ta-
 piai dela Huerta dela fábrica en que habita D. Alquielo
 Ibarra. Iste es la cuesta nombrada villa, nombro el que
 y oyone noticia al pana ados oyores ay Pobres: que allan
 que el que oyone en la noche en dia festivo inmediato
 al anterior d. S. Juan en la Plaza llamada cuesta de
 esta fonda villa, acompañado ados sefizos Alvarado
 Azcoa y Alquiel Antonio de Otalora, oio auxi a este
 ultimo que el havia visto el ayer en la feria que
 llevaba hecha mención, y algunos otros, que seguian
 acorriuacion, y llegaban hasta Cadore, y en que

80

B

le gloria da leloa lelo gaitzera digoia gira da da jira
 goananda guero onongo lelo) da da noda noda. Yina
 dela echarotan Yina Dela echarotan da lelo guielur.)
 elia gara urrundie guiba bidean emanie espes pardat
 man bidele Ikerdiko Yina orzunie) Echeaz dor nua
 lora Ikerdiko gara pescadela echeaz arrizpene ongi
 dorri garda.) Bioperra da espeda catalunian eresia
 echeaz entaguzue oplatzera hizkia.) Bordaz ider eguztez
 bertak agie hizkarei echeaz oraguzue nai guitzuzuera
 bai ala e.) echeaz dor Caicua irratikion zacua presen
 tecoa Yain espas hori guinon grande heritua. Nolalda
 dago loptik batetik da berretik presenteko Yain espas
 irree ure zacua aukatik.) Carnisan Elizamio urea
 gredatuco handic echen datorrenem. Lilar Cadiran
 yarrio.) Kandore dor paupulina ure erastunie begu
 fina. Andre espas horredu duri baitan aldean Yina
 gina.) hortzae Diluzu Harren begiakie ure boloinen gur
 zurquin ebilen denie bar urriquirie e.) urean dor Ein
 guira Yigura Yigura Zubia presente eo. Andre espas
 s hori boloinia Yosten arid.)

Martin Felipe Lekuberri Zugarramurdikoaren Dotrina bukaeran ageri
 diren eske-koplen faksimileak. Hasieran honakoa dio eskuzkribuak:
*Catecismo que perteneció a Martin Felipe Lecuberri, abuelo de Nuestra abue
 la. Data de 22 de junio de 1827.*

aguer suri egin begiue militare suri batequin milise sur
 bolazain da almoada der biaguin Elida Simonet argi
 egunendore siribio fare batequin siribio pare batequin da
 torcha der biaguin harrido der gara gurutxa lege gribes
 atea trine frane lermne frane erritu da si car epos paron
 ancirriai minirriai biaguac opun zilo dili nore fidea nar
 age nuque amabi senie birentzus eguila berriae der Ju
 sindu eguila dorren iardealondu Sone der bat Jaqueline
 la erromaeo Elida Saindu) semei bida egunendore eun
 pendore espauia alaba bida areago orequinia francia
 landan der udire errangogo dit auere sone der bat
 Jaquelinea opauia hraguetura der expidient eun
 dan extoucan datem igunue Ynacuen izenian,) londa
 n der gizur estimi horurm pista Ynacore onen ma
 dicuda finau Elantxas,) echen der gipiriaz oreberri dato
 siribio bizar ore dorrio gara hil manue Siquieros,) ihasoe
 tan bordernae iban Mariabel gipore andur egin agur
 echen e Ynacore dirla giben.

